

IKASKETA+ZERBITZUA

GURASOENTZAKO GIDA



Rafael Mendía Gallardo

Zuzendari editoriala: Aitziber Mugarra Elorriaga

Autorea: Rafael Mendía Gallardo

Aholkularitza: ZERBIKAS Fundazioa

Laguna kalea 5, beheka (Harrobi plaza) 48003 Bilbo

Tel.: 618159269 info@zerbikas.es

www.zerbikas.es / www.zerbikas.eus

Genero ikuspegiaren berrikusketa:

Marisa Lozano Gil.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko Espainiar

Sareko Genero Batzordea (REDAPS)

Herritar hizkuntzaren berrikusketa:

Lina Ugarte Sauret, Nerea Aizpurua Iraola.

Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Erraza

Diseinua: Erreka Multimedia S. Coop.

ISBN: 978-84-09-46555-2

Lege-gordailua: LG BI 01682-2022



Aitorpena – Ez merkataritzakoa – Berdin partekatu (by-nc-sa): Jatorrizko lana eta lan horretatik eratorritakoak ezin dira merkataritza helburuetarako erabili. Eratorritako lanak zabaltzea jatorrizkoaren lizentzia berdinean egin behar da.

Aurkibidea

0. GARRANTZITSUAK DIREN KONZEPTEUEN HIZTEGIA	4
1. AURKEZPENEA	5
2. TUTORETZAKO WHATSAPP-a	6
3. BILERA TUTORETZAN	8
4. ZER DA IKASKETA+ZERBITZUA?	12
5. ZER IKASTEN DUTE GURE SEME-ALABEK IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTU BATEAN PARTE HARTUTA?	14
6. ZERTARAKO BALIO DU IKASKETA+ZERBITZUAK?	22
7. NOLA LAGUNDU DIEZAIOKET ALABARI EDO SEMEARI IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUETAN?	23
8. IKASKETA+ZERBITZUA FAMILIAKO BIZITZA BERRITZEKO	26
9. NOLAKOA DA IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTU BAT?	28
10. IKASKETA+ZERBITZUA PRAKTIKATZEKO HAMAR ARRAZOI	44
11. GURASO ELKARTEAK, IKASKETA+ZERBITZUAREN BULTZATZAILE	46
12. IKASKETA+ZERBITZUAREN EUSKAL SAREA	60
13. IKASKETA+ZERBITZUAREN ESPAINIAKO SAREA	61
14. BIBLIOGRAFIA	62

Garrantzitsuak diren **kontzeptuen** hiztegia

dibertsitate funtzionala: desgaitasunari deitzeko beste forma bat da.

etengabeko ebaluaketa: ebaluatzeko modu bat da eta aldizka egiten dira probak ikasturtean zehar. Proba horiek ikasleen ikaskuntza-prozesu osoa baloratzeko eta hobetzeko egiten dira, ikasturteak aurrera egin ahala.

garapen jasangarria: ekonomikoki hazten ari den eta herritarren eskubideak eta ingurumena errespetatzen dituen herrialde edo eskualde baten garapena.

gizarte ekintzaitza: arazo sozialak eta ingurumenekoak konpondu nahi dituen proiektu bat edo negozio bat hasteko modu bat da.

herritartasunari lotutako gaitasunak: pertsonak adeitsuak, konprometituak izatea eta modu konstruktiboan parte hartzea ahalbidetzen duten ezagutza eta trebetasun kognitiboak, emozionalak eta komunikatiboak dira.

ibilbide lagunkoiak: pertsona guztiak erabil ditzaketen ibilbide irisgarriak dira.

ikuspegi egozentrikoa: uste dugunean gure ikuspuntua beste pertsonena baino garrantzitsuagoa dela.

irisgarritasun unibertsala: denek erabil eta sartu edo lortu ditzakegun leku, produktu edo informazio baten ezaugarria.

mapatu: mapak egitea da.

OpenStreetMap: nazioarteko lankidetzaren proiektu bat da, mapa editagarriak eta libreak sortzeko.

pentsemendu estrategikoa: helburu bat planteatzen da eta dituen baliabideak aztertu eta erabiltzen ditu helburu hori betetzeko.

sistemizatutako gogoeta: bizitako esperientzia pentsatzeko antolatutako prozesua da. Horrela, hobeto ulertzen eta jarduten eta bizitakoari zentzua ematen lagunduko duen ikaskuntza lortuko du.

software libre: informatikako programak Interneten gauzak sortzeko, kopiatzeko, aldatzeko...

1. AURKEZPENA

Guraso edo familia esparruan hezitzaile izateak inplikazio handia dakar neska-mutilen hezkuntzan. Ez ginateke ados egongo familian hezi eta eskolan irakatsi egiten dela planteatzen dutenekin. Familian hezi eta irakatsi ere egiten da eta eskolan irakatsi eta hezi ere egiten da, agerikoa denez. Prozesu horretan denok gaude inplikaturata, denoi dagokigu hezteko eginkizuna.

Gida honetan gurasoei eta familia esparruko eta harrera-egoitzetako hezitzaileei lagundu nahi diegu hau ulertzen:

- Ikasketa+Zerbitzua zer den.
- Zer eta nola jokatu daitekeen gure seme-alabak Ikasketa+Zerbitzuko proiektu batean parte-hartzen duenean.

Gida honen aurretik, ZERBIKASek eta IKASKETA+ZERBITZUKO ESPAINIAR SAREAK (READAPS) liburuxka labur bat argitaratu dugu "Aprendemos siendo útiles".

Ikasketa+Zerbitzua zer den ulertzea da ikastetxean ekimen honen erabilera balioesteko oinarria. Familia esparruan proiektu honek babesa izateko ere bai, gure seme-alabak babestuta, aitortuta eta balioetsita sentitu daitezen, halako proiektuetan murgilduta daudenean. Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza-proposamena da, proiektu berean curriculumaren ikaskuntzak eta komunitateari eraldatzeko ematen zaion zerbitzua bateratzen dituena. Hortaz, hezkuntzako ekimena egiten den elkarte osatzen dugun herritar guztioi eragiten digu.

Hartara, elkarte hezkuntzarako gune bihurtzen da eta gure neska-mutilen konpromisozko eta elkartasunezko ekimenetik jasotzen du mesedea.

Horixe da Gida honen asmoa, gurasoei elkartean eragina duen familiako hezkuntza eta elkartasun zereginen lagungarri izatea.



*Aitziber Mugarra Elorriaga
ZERBIKAS Fundazioko presidentea*

2. TUTORETZAKO WHATSAPP-a

Demagun harreran dagoen adingabeko baten ama, aita edo hezitzailea zarela.

Demagun haur bat duzula Lehen Hezkuntzan edo DBHn edo Batxilergoan edo Lanbide Heziketan egiten (nerabea izango litzateke). Gure kasuan, berdin izango litzateke, zutaz edo zuri begira, guraso edo hezitzaile, hitz egingo genukeelako.

Demagun, zure seme-alaben heziketa ere interesatzen zaizula, ziur baietz. Ikasketetan ondo, gaizki edo erdipurdi doazen interesatzen zaizu. Harmonian hazten ari diren, pertsona moduan hazten ari diren eta herritartasuna daukaten adinaren arabera garatzen ari diren.

Sarritan, oharrak, mezuak, oroigarriak jasoko dituzu ikastetxetik, umeek egiten dituzten jardueren inguruan, edo taldeko edo gelako bilera egiteko deialdiak, edo tutorearen edo ikastetxeko orientazioaz arduratzen den pertsonaren mezua bilera partikular bat izateko.

Oraingoan hainbat bidetatik jaso duzu komunikazioa. Horrek adierazten du garrantzizkoa dela.

Alabak ere inprimaki bat eraman dizu, Ikasketa+Zerbitzua deitzen den aparteko jarduera bat egiteko baimena eman diezaiozun.

Jakina, zeure buruari egin diozun lehenengo galdera hau izan da:

“Zer da Ikasketa+Zerbitzua?”

Umeak, beti bezala, hitz nahasiz erantzun dizu, zelan azaldu ondo jakingo ez balu bezala.


Hori normala da, gazteek hala hitz egiten dute. Badakite zer den, baina ez dakite ondo zelan azaldu familiari, gauza horien inguruan senideek duten “neurrigabeko” interes edo ekina ikusita.

Buelta ugari eman eta gero, gustatzen zaizulako edo interesatzen zaizulako edo kezkatzen zaituelako aurpegia jarri eta gero, ideia bat egiteko moduan erantzun diezazun lortu duzu. Horrela bilerara zerbait dakizula joateko moduan, oinarri-oinarrizkoa eta eskematikoa bada ere.

Zientzietako proiektu bat egingo dutela esan dizu, klaseko guztien artean eta gehiengoz erabaki dutela, aukera batzuen artean. Natura Zientzietako proiektu bat egingo dutela esan dizu. Baina ez hori bakarrik, proiektu hori ere elkarterako, auzorako baliagarria izaten saiatzen da.

Ikasgaia ikasita zeukan, baina lotsa ematen zion. Gogorarena edo interesik ez zuenarena egiten ari zen, baina nabaritzen zitzaion ilusia bazuela, berez gustatzen zitzaiola.

Eta zuri ere bai, edo hori uste duzu.



3. BILERA TUTORETZAN

Garaiz heldu zarete, tutorea eta taldeko beste guraso batzuk agurtzeko.

- Kaixo, zer moduz?
- Zelan hazi den Ander, koskortzen ari da.
- Eta Mireni trebetasuna igartzen zaio!
- Zelan hazi diren!

Baten eta bestearen istorioak kontatzen dituzue, kontu barregarriak, ateraldiak...

Zertarako bildu zaituzten galdetu diozue elkarri. Ama batek ideia bat eman digu, aita batek hau eta hura. Eta denon artean puzzlearen zatiekin zerbait asmatu duzue.

Ondo sartzen ez bagara ere, ia denak etorri baikara, biribilean jesarri gara klaseko mahaietan.

Tutoreak, batzuekin eta besteekin hizketan aritu ondoren, hasiera eman dio bilerari. Taldea agurtu du, eskerrak eman dizkigu etortzeagatik eta bileraren arrazoia azaldu digu. Oraingoan ez digu programa, etxeko lan edo portaerari buruz hitz egin. Harrigarria! Zerbait kontatzen hasi zaigu eta interesa piztu digu.

Ikasleen artean herritartasunari lotutako gaitasunak garatzearen garrantziaz hitz egin digu eta hori ez dela liburuetan eta klasean soilik ikasten. Ikastetxeak hori indartu nahi duela ikasleen artean eta herritartasun espiritu hori proiektu zehatzetan ere sentitzea.

Bagenekian "Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza" metodologiarekin lanean ari zirela.

Neska-mutilek gehiago eta hobeto ikasten dute elkarrekin proiektu baten inguruan, sormena garatuta eta elkarri lagunduta.

Orain beste urrats bat eman nahi dute: proiekturen bat egin elkarreari zerbitzuak eskaintzeko. Eta garrantzizkoa da pentsatzea honek guztiak ikaskuntzarekin zerikusia duela, arlo desberdinetako ezagutzak sendotzearekin eta bizi diren ingurua ezagutzearekin.

Aurtengo ikasturteko ikasleei Ikasketa+Zerbitzuko proiektu bat egitea proposatu digu. Ikasketa+Zerbitzua zer den azaldu digu.

Esaldi batean laburtu du: Beste pertsoneri, elkarteari zerbitzu bat emanez ikastea.

Prozesua azaldu digu: neska-mutilek zer egin behar duten, auzoa ezagutzera irten beharko direla, komunitatearen beharrianak identifikatu, familiek zer egin dezaketen pentsatuko dutela, komunitatean aldaketa txiki bat ekarriko duen zerbait diseinatuko dutela, zer egiten ari diren hausnartu...

Ondo azaldu digu, zehatz-mehatz eta gogotsu. Bertaratuen galderak berehala sortu dira:

- Eta ikasturteko programazioa?
- Eta ikasketak?
- Eta azterketak?
- Eta arriskuak?
- Eta beldurrak?
- Eta nahi ez badute?
- Eta gurasoek baimenik ematen ez badute?
- Nork lagunduko die?
- Zer egin behar dugu familiok?

Eta beste hamaika galdera ateratu dira tutorearen azalpenaren haritik.

Tutoreak pausoz pauso azaldu du dena, lasai eta argi, entzuleak lasaitu nahian.



- Proiektu hauetan lantzen dituzten ikaskuntzak eskolako curriculumaren barrukoak dira, hau da, irakasgaien programakoak. Batzuetan ikasketa berriak dira, beste batzuetan errepasoa eta ikasita dutena sakontzea. Beste batzuetan sendotu gabeko ikasketak berreskuratzeko eta jardueraren bitartez argiago ikusteko dira.
- **Etengabeko ebaluaketa** egiten da eta neska-mutilen lana behatzean dago oinarrituta, proiektuaren joanean egiten dituzten memorietan, lankidetzan diharduten entitateen ikuspegiari.. Ebaluatzeko beste era bat da, gai desberdinen ebaluazioan eragiten duen elementu multzoa kontuan hartuta. Ez da azterketa bat.
- Jarduera batzuk eskolan egingo dira, beste batzuk lankidetzan parte hartzen duten erakundeetan, ikasleek zerbitzua emango duten erakundeetan. Neska-mutilak irakasleekin egongo dira eta astean arratsalde bat emango dute zerbitzuan, esaterako.
- Gurasook lagundu dezakezue neska-mutilak animatzen, proiektuan inplikatu daitezzen, zelan doan galdetuta, baita taldeko lanean ekarpena eginda ere, irteeretan lagunduta, harremanak egiten lagunduta...

Eta hala erantzun die gurasoen ahoetan sortu diren hamaika galderei.
Zenbait ikastetxetako proiektuen adibideak jarri dizkigu:

Zaindu dezagun gure parkea

Anak, Titok eta eskolaurreko taldeak eskolatik gertu dagoen parke eder bat mantentzen lagutzen dute. Klasean animaliak eta landareak ikasten dituzte, zein balio duten eta zein zainketa behar dituzten. Gero lorezain eta kazetari lana egiteko konpromisoa hartzen dute: landatzen lagutzen dute, espezieak seinaleztatzen dituzte eta parkearen balioaren berri zabaltzen dute auzoan.



Kontzertua egoitzan

Aracelik, Dariok eta Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikaskideek ia hiruhileko osoa eskaintzen diote musikako klasean eskolatik hurbil dagoen pertsona nagusien egoitzarako kontzertu bat prestatzeari. Klasean kantuak prestatzen dituzte, entseatu eta ikuskizuna antolatzen ikasten dute. Eta nagusiak errespetatzen eta haiekin harremanak izaten ikasten dute.



Zibermanagerrak

Gabriel, Juana eta DBHko 4. mailako ikaskideak Interneten erabilera desegokien prebentzioan aditu bihurtu dira. Teknologiako klasean ikasi dute zelan jokatu abusuak saihesteko eta euren intimitatea gizarte sareetan babesteko. Ondoren, Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurrei partekatuko diete ikasitakoa.



4. ZER DA IKASKETA+ZERBITZUA?

Tutoreak esandakotik ondorio argia atera dugu Ikasketa+Zerbitzua zer den.

Esateko era erraza hau litzateke:

“Ikasketa+Zerbitzua besteentzat baliagarria den zerbait eginez ikasteko era bat da”.

Deskribapen osoago bat da hau:

“Ikasketa+Zerbitzua hezkuntzako proposamen bat da. Ondo egituraturako proiektu bakar batean curriculumaren barruko ikaskuntzak eta elkarterako zerbitzua bateratzen ditu”. (Centre Promotor de Aprenentatge-Servei. Bartzelona)

Inguruko gizarteko beharizan baten aurrean, neska-mutilek komunitateari zerbitzu bat emateari ekiten diote. Horrek lagundu egiten die ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak aplikatuta ikasten.

Ikasketa+Zerbitzuak hezkuntza mailako arrakasta eta gizarte konpromisoa uztartzen ditu: praktikan jarrita, gure seme-alabak trebeagoak izango dira eta, aldi berean, herritar hobeak.



Idea zehatzagoa izan dezagun, tutoreak adibide gehiago jarri dizkigu toki batekoak eta besteakoak, hemengo ikastetxe batekoak eta hangoak:

Tolosako Herrikide ikastetxeko DBHko 2. eta 3. mailako ikasleak, Tolosako Uzturre egoitzako egoiliarren egoera aztertu eta zentrotik irteteko zelako arazoak zituzten ikusirik, MUGI programan parte hartzea erabaki dute. Astero joaten dira herritik paseo bat egitera. Beste jarduera batzuk ere egin dituzte: zinema osasungarria, buruko gaixotasunen inguruan sentsibilizatze jardunaldia eta olinpiada bat antolatu dute ikasturteari amaiera emateko.

Alcoiko Col-legi Sant Roc ikastetxeko neska-mutilek minbiziaren inguruan sentsibilizatze jarduerak egin dituzte eta gizarte eta kultura ekitaldiak antolatu dituzte: antzerkia, kontzertuak, jaialdiak, bazkariak, erakusketak, zinema proiektzioak... minbiziaren kontrako funtsak biltzeko eta haur gaixoen ongizatean laguntzeko. Alacanteko Hospital General Universitario zentroarekin eta hiriko beste gizarte eta kultura erakunde askorekin batera.

Valentziako Nuestra Señora de la Misericordia Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek kaskabeltz, buztanikara eta hiriko parkeko beste hegazti batzuentzat kutxakabiak egin eta jarri dituzte, zumarrei eragiten dien zumarren kakalardoaren izurritea kontrolatzeko. Auzo elkartearekin, Seo Birdlife erakundearekin, Parke eta Lorategien Udaleko arlokoekin eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoko eta Valentziako Unibertsitateko ikasleekin batera egin dute lan.



5. ZER IKASTEN DUTE GURE SEME-ALABEK IKASKETA+ ZERBITZUKO PROIEKTU BATEAN PARTE HARTUTA?

Interesgarria dirudi tutoreak proposatzen digunak eta Ikasketa+Zerbitzuaren atzean zer dagoen aztertzen jarraitu dugu. Bi hitzetan adierazten den horrek potentzial handia du bere baitan.

5.1. Ikasketa+Zerbitzuak diziplinetako eta zeharkako gaitasunak sustatzen ditu

Gaitasun guztiak lotuta daude, ezagutza akademiko eta profesionalekin: ikasten ikasi eta egiten ikasi. Baita gizarte garapenarekin (beste pertsona batzuekin bizitzen ikasi) eta garapen pertsonalarekin (izaten ikasi).

Ikasketa+Zerbitzuak **pentsemendu estrategikoa** garatzeko aukera ematen du, benetako eta osagai guztiak biltzen dituen egoera batetik: errealitatearen analisia, proiektu bat sortzea, planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea.

Ikasleak komunitate bateko parte direla eta hobekuntzan parte hartzeko aukerak dituztela jabetzen dira, bizi izandako esperientziatik haratago. Horrela herritar izaera hartzen dute.

Ikasleei **ahalduntzen** laguntzen die eta pertsona gisa garatzen ikasten dute, beren interes pertsonal eta komunitarioko proiektuetan parte hartuta.

5.2. Ikasketa+Zerbitzuak lagundu egiten du autoestimua garatzen

Autoestimua pertsona bakoitzak bere buruaz egiten duen balioespina da. Inguruarekiko esperientzia eta harremanen bidez eratzten da eta horretan garrantzizko papera jokatzen dute pertsona esanguratsuek.

Planifikatutako esperientzia horiek ere bidea ematen diete etorkizunerako aukerak irudikatzeko, helmugak ezartzeko, aukerak egiteko eta norbere biografia eratzeko.

5.3. Ikasketa+Zerbitzuak lagundu egiten du balio eraikitzaileak garatzen

Balioak erreferente egokiak dira pertsonentzat eta portaeraren eta bizitzaren eragileak dira. Jokabidea eta erabakiak bideratzen dituzten idealak, interesak, motibazioak eta beharrianak jasotzen dituzte. Beti daude bakoitzaren bizitzan eragiten duten balioak eta ezagutzeak horien garapenean hezkuntzatik jarduteko modua ematen du.

Pertsoneri beren burua eta besteak balioesten irakasten dugunean, **ikuspegi egozentrikoak** gainditzen eta lankidetzako jarrera eta portaerak garatzen laguntzen ari gara. Horrela, parte hartzeko, elkarren arteko errespetu eta tolerantziako, lankidetzako edo elkartasuneko portaerak sustatu ditzakegu, horiek baitira bizikidetzaz demokratikoaren eta gizarte inklusioaren oinarriak.

5.4. Ikasketa+Zerbitzuak sendotu egiten du bizitzan zehar trebetasunak ikastea


Hezkuntza zibikoaren faktoreetako bat hau da: pertsoneri gizarte mailan gai izaten lagunduko dieten prozesuak sortzea. Hau da, beren buruarekin, gainerakoekin eta bizi diren inguru sozial eta kulturalakoekin era positiboan moldatzeko moduan egotea.

Bizitarako trebetasunak ezinbestekoak dira gaitasun psikosoziala garatzeko, Osasunaren Mundu Erakundeak proposatzen duen ereduaren arabera (1993). Trebetasun horietan egoki trebatuta dagoen edonor sendotu egingo da pertsona moduan eta urrats garrantzitsua emango du autonomia pertsonalerantz.

5.5. Ikasketa+Zerbitzuak enpatia eta prosozialitatea sentitzeko egoeran jartzen ditu gure seme-alabak

Ikasketa+Zerbitzuak gure neska-mutilen enpatia garatzea ahalbidetzen du.

Enpatiak pertsonak elkarri laguntzean eragiten du. Estu-estu lotuta dago altruismoarekin eta laguntzeko gaitasunarekin. Altruismoa besteengatik maitasuna eta kezka da. Gainerakoen mina edo sufrimendua sentitzea lortzen denean, haien lekuan jarrita, lagundu nahia eta oinarri moralak jarraituz jarduteko gooa sortzen da. Besteen tokian jartzeko gaitasuna enpatiaren bidez garatzen da.



Gaitasun horrek lagundu egiten du egoera jakin batzuetako jokabidea eta besteak erabakiak zelan hartu dituen hobeto ulertzen.

Enpatia antipatiaren kontrakoa da, beste pertsonarekiko harremanak plazera, poza eta gogobetetasuna eragiten baititu. Enpatia jarrera positiboa da, harreman osasungarriak sortzeko modua ematen duena, gizartearen bizikidetzara hobe sortuz.

Jokabide prosozialak dira beste pertsona, talde edo gizarte helburu batzuk aldeztu dituztenak, kanpoko ordainak edo ordain materialak bilatu gabe. Gainera, pertsonen artean edo gizarte harreman kontsekuenteeetan elkarrekikotasun positiboa, kalitatekoa eta solidarioa sortzeko aukerak areagotzen dituzte. Horrela inplikaturik daudenen identitatea, sormena eta ekimena babesten dira (Roche, 1991).

Lorcako (Murtzia) Pasico Campillo Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko hezkuntza maila guztietako ikasleek era askotako elkartasun ekimenak egiten dituzte pertsonen bizi kalitatea hobetzeko: odola eman, adinekoak artatu, garapenerako lankidetzara, bertan behera utzitako animaliak zaindu, baliabide gutxi duten familiak artatu, sarean lan egiten dute gurasoen elkartarekin, udalarekin, tokiko enprekin, gizarte erakundeekin...

Xixoneko (Asturias) Miguel de Cervantes ikastetxe publikoko Lehen Hezkuntzako umeei eta Bigarren Hezkuntzako nerabeei (eta beste 13 ikastetxek sarean) genero indarkeriaren inguruan jendea sentsibilizatzeko ekimenak egiten dituzte: salatu, babestu, aldarrikatu, jakintza partekatu, funtsak bildu eta egoera ahulean dauden pertsonen lagundu... Beste erakunde askorekin elkarlana egiten dute: auzotarren elkarteak, merkatarien elkarteak, emakumeen kontseilua, Conseyu de Moicedá, Las Comadres tertulia feminista, Mar de Niebla, Mujeres Fundazioa, Ayuda en Acción, APFA...

Ourenseko (Galizia) APES Elkarteak umeei komunitatea sentsibilizatzen dute desgaitasunaren inguruan: jolas egokitua dinamizatzen dute, zeinu-hizkuntza irakasten dute, informazio kartelak zabaltzen dituzte, espazioen irisgarritasuna edo irisgarritasunik eza adierazten dute zeinu-hizkuntzako, Braille sistema edo piktogramak dituzten kartelen bidez. A Cuña zentro zibikoarekin elkarlana egiten dute.

5.6. Ikasketa+Zerbitzuak gure seme-alabei erresilienteagoak izaten irakasten die

Erresilientzia da mugako egoerak malgutasunez hartu eta egoerei eusteko giza ahalmena. Egoera horretatik indarturik ateratzean ere lagun dezake.

Erresilientziak eskatzen du gure baliabide psikologikoak berregituratzea inguruabarren eta gure beharrianen arabera. Horrela, pertsona erresilienteek bizi behar izan dituzten ezbeharrei eusteko gai dira. Gainera, egoera horiek erabiltzen dituzte hazteko eta beren potentziala ahalik eta gehien garatzeko.



Erresilientzia praktikatzen duten pertsonak:









1. jabetzen dira beren potentzialaz eta mugez.
2. sortzaileak dira.
3. beren ahalmenetan konfiantza dute.
4. zailtasunak ikasteko aukera gisa hartzen dituzte.
5. bizitza objektibotasunez ikusten dute, baina beti ikuspegi optimistatik.
6. jarrera positiboa duten pertsonen inguratzen dira.
7. ez dira egoerak kontrolatzen saiatzeko, emozioak kontrolatzen baizik.
8. malguak dira aldaketan aurrean.
9. ekinak dira beren asmoetan.
10. umorez egiten diote aurre zoritxarrari.
11. besteen laguntza eta gizarte babesa bilatzen dute.

5.7. Ikasketa+Zerbitzuak gure seme-alabei errealitatea aldatzeko konpromisoa sentiarazten die Garapen Jasangarrirako Helburuen alde lan eginez

Garapen Jasangarrirako Helburuen konpromisoa Ikasketa+Zerbitzutik egiteak neska-mutilen ahalduzko garapena dakar eta honako hauek lortzen dira: egiten dituzten ekintzen inguruan hausnartu eta kontuan hartu eragin sozialak, kulturalak, ekonomikoak eta ingurumenekoak; egoera konplexuetan era jasangarrian jardungo dute, nahiz eta bide berrietatik menturatzea eskatu; eta inguruko adiskideak, auzokoak edo hirikoak bultzatuko dituzte garapen jasangarrirantz.

Garapen Jasangarrirako Helburuak lantzeko Ikasketa+Zerbitzua erabilita garrantzi handiko hezkuntza eskaintzen da, denentzat garrantzizkoa dena, ume, gazte eta helduentzat, gaur egungo erronken argitan.

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)

	1. Pobreziaren amaiera	Pobreziari amaiera ematea era guztietan eta mundu osoan.
	2. Goserik ez	Goseari amaiera ematea, elikagaien segurtasuna lortzea eta nutrizioaren hobekuntza. Nekazaritza jasangarria sustatzea.
	3. Osasuna eta ongizatea	Bizimodu osasuntsua bermatzea eta denentzako ongizatea sustatzea adin guztietan.
	4. Kalitateko hezkuntza	Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatekoa bermatzea. Ikasteko aukera berdintasuna sustatzea bitzita osoan zehar denentzat.
	5. Genero berdintasuna	Genero berdintasuna lortzea eta emakumeak eta neskak ahalduntzea.
	6. Ur garbia eta saneamendua	Ura izatea eta haren kudeaketa jasangarria egitea. Denentzako saneamendua bermatzea.
	7. Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea	Energia eskuragarri, seguru, jasangarri eta modernorako sarbidea bermatzea.
	8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Hazkunde ekonomiko inklusiboa eta jasangarria, enplegu eta lan duina denentzat sustatzea.





	9. Industria, berrikuntza eta azpiegiturak	Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio jasangarria eta berrikuntza sustatzea.
	10. Desberdintasunak murriztea	Herrialde guztietan eta herrialde guztien arteko desberdintasuna murriztea.
	11. Hiri eta komunitate jasangarriak	Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izatea lortzea.
	12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak	Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
	13. Klimaren aldeko ekintza	Premiazko neurriak hartzea klima aldaketari eta haren ondorioei aurka egiteko.
	14. Itsaspeko bizitza	Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak zaintzea eta haien erabilera jasangarria egitea.
	15. Lehorreko ekosistemen bizitza	Basoen kudeaketa jasangarria egitea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
	16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak	Gizarte bidezko, baketsuak eta inklusiboak sustatzea.
	17. Helburuak lortzeko itunak	Garapen Jasangarrirako Mundu mailako Ituna indartzea.

Iturria: <http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-development-goals>

5.8. Ikasketa+Zerbitzuak gure seme-alabei ekiten irakasten die

Ikasketa+Zerbitzuko proiektuak garatuz, gure seme-alabek **ekiten ikasten dute**.

Gizarte ekintzaitzarako funtsezko gaitasunak dira: sormena, ekimena izatea, etorkizuneko ikuspegia, konpromisoa, esparruen aniztasuna, berrikuntza, helburuen arabera jardutea, lidergoa, limurtzeko ahalmena...

Ikasketa+Zerbitzuak sustatzen du gizarte eraldaketarako, gizarte motibaziorako, jasangarritasunerako, arriskuak hartzeko eta arazoak ebazteko, autonomia eta ekimen pertsonalerako, autokonfiantzarako, optimismorako, planifikatzeko gaitasuna.

La Sagrerako (Bartzelona) Mare de Déu dels Àngels ikastetxeko [REC]FUGIADES proiektuak DBHko 4. mailako ikasleak inplikatzeko dituen herritarren arteko ezagutza eta informazioa hobetzeko ekimenetan gai hauen inguruan: migratzaileen, iheslarien eta errefuxiatuen egoera eta eskubideak. Bereziki gazteei zuzentzen zaie eta pertzepzioak eta jarrerak aldatzen laguntzen du. Proiektua bi fasetan egiten da:

1. Ikerketa eta ikaskuntzak sendotzea, ezaguerak, tresnak eta esperientziak ematea talde horren egoera ulertzeko.
2. Sentsibilizazio kanpainarako eta zerbitzurako azken produktuak sortzea: argazki erakusketa errefuxiatuei buruz, horma-irudi ibiltaria, rape, iragarkia, laburmetraia bezalako ikus-entzunezko materiala eta ipuina eta ihes gela bezalako jarduera interaktiboak. Umeak eta gazteak errefuxiatuek bizi duten errealitatera hurbiltzeko helburuarekin.

Horrela, gazteen hausnarketa eta pentsamendu kritikoa, enpatia eta harrera jarrerak sustatzen dira, bizikidetzak balioa hartzen du kulturen arteko ikuspegitik.

Palentziako Santo Ángel ikastetxeko Haur Hezkuntzako ikasleek kirolean errespetu faltaren egoerak zergatik gertatzen diren aztertzea erabakitzen dute. Adibidez, epaileari oihu egiten dioten gurasoak, jolasten ari direnen kontrako irainak, bultzadak baloia hartzeko...

Estatu mailako aitormena duten Palentziako kirolariak gonbidatu zituzten klasera, hala nola, atletismokoak, saskibaloikoak, errugbikoak... eta elkarrizketatu zituzten. Erantzuna harrigarria izan zen eta esperientzia eta kirolarien presentzia gozagarri gertatu zitzairen.

Ondoren hainbat jarduera eta jolas egin zituzten, entrenatze-saio fisikoa eta emozionala ere nolakoa den sentitu ahal izan zuten. Errespetua, arau bat baino baldintza bat da "txapeldun" izateko.

Horrek guztiak eraman zituen ikasitakoa erakustera eta publizitateko spot bat egitera: Errespetuz jolastu eta bizi behar dugu, Gure bihotza entrenatu. Ondoren ikasleekin bideoaren muntaketa antolatu zuten: nola egin, non, norekin... Azkenik, zabalkundea egin zuten. Besteei egindako zerbitzuan, ikaskuntza berriak abian jarri zituzten.

Muskizeko (Bizkaia) Somorrostro Lanbide Heziketako Zentroan, Soldadura eta Galdaragintzako zikloetan (SC2), Mekanizatukoetan (ME2), Ingurumen Hezkuntzakoan (EA3), Eraikuntza Metalikoetakoan (CM3), Sistema elektrotekniko eta automatizatuatan (SEA3) eta Lan arriskuen prebentzioan, lau makina eraikitzen dituzte: birringailua, estrusio-makina, injekzio-makina eta konpresorea. Makina horiekin, Gandiol-eko (Senegal) hondartzetan pilatzen diren plastikoak objektu baliagarri bihurtzen dituzte tokiko elkarterako: baldosak, teilak, heldulekuak...

Makinak eraikitzeak eskatzen du ziklo horietako funtsezko ikaskuntzak praktikan jartzea: soldatzea, mekanizatzea, exekuzio elektrikoa; Senegaleko plastiko moten azterketa egin beharra; makina horiek manipulatzeko orduan izan daitezkeen arriskuak identifikatzea eta makinak seguru erabiltzeko eskuliburua diseinatzea.



6. ZERTARAKO BALIO DU IKASKETA+ZERBITZUAK?

Gure seme-alabentzat

Ikaskuntza erraztu eta errendimendu akademikoa hobetzen du, neska-mutilak gehiago motibatzen baitira, ikasten dutenari gizarte mailako balia garritasuna aurkitzen badiote. Arduratzan laguntzen die herritar aktibo gisa!



Ikastetxerako

Balioen hezkuntza eta herritartasunerako hezkuntza zehazteko era ezin hobea da. Errealitatea eraldatzen duten talde ekimenak egin eta eskolaren eta elkartearen arteko harremana hobetzen dira. Eskola ere hazi egiten da Ikasketa+Zerbitzuarekin!

Elkarterako

Pertsonen bizi baldintzak hobetzen ditu eta taldea osatzen dutenen partaide sentimendua sendotzen da. Populazioaren konfiantza hazi eta boluntarioria eta gizarte zibila indartzen dira.



Familiarentzat

Hezkuntzako ikaskuntzak eta ekimenak bizitzeko era motibagarriagoa da eta seme-alabei inplikaziorik handiena eskatzen diena. Gure aisialdia elkarrekin partekatzeke era solidarioa ere izan daiteke, familiako balioak transmititzeko ekintza solidarioen bidez.

7. NOLA LAGUNDU DIEZAIOKET ALABARI EDO SEMEARI IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUETAN?

Gure arteko guraso askok galdetzen diogu geure buruari nola lagundu gure seme-alabei, Ikasketa+Zerbitzuko proiektuaren garapenean. Geure buruari galdetzen diogu zein den gure hezitzaile papera guzti honetan. Izan ere, **heztea laguntzea da**.

Gure seme-alabei laguntzea haien ondoan jartzea ere bada pertsona eta gizarte hazkuntzako ibilbidea egiteko beren beharrianetatik abiatuta. Laguntzea neska edo mutil bakoitza adoretzea da proiektu propioa egiteko. Hori da familien rola.

Lagundu nahi duten gurasoek konfiantza izan behar dute neska-mutilen pentsatzeko, jarduteko eta ikasteko gaitasunetan. Baita irtenbide sortzaileak bilatzean ere arazoei aurre egiteko gaitasunetan, adinari eta bakarkako eta taldeko esperientziari bat etorritu.

Kontua da esperientzien protagonismoa ume, nerabe eta gazteei uztea. Konfiantza hori funtsezko urratsa izango da gai sentitu daitezen, positiboki balioetsi dezaten beren burua eta gizarte mailan garrantzizkoa eta eraldatzailea izango den papera izateko.

"Inor ez da 'txikiegia', 'pobreegia' edo 'bereziegia' besteei ezer ez eskaintzeko".

María Nieves Tapia



7.1. Balioetsi

Balioestea **balioa ematea** da. Garrantzia ematea.

Nola **balioetsi** ditzakegu gurasook seme-alabek praktikan jartzen dituzten proiektuak?

Galderak egin ditzakegu estutu gabe. Egiten ari direnaz interesa erakuts dezakegu, elkartasunezko jarduera horiei garrantzia eman eta prestatzeko direla kontuan hartu. Gainera, neska-mutilen prestatuntza programarako alderdi garrantzizkoak garatzen dituzte.

Balioestea balioa kentzearen kontrakoa da. Balioa kentzea zerbait ez zaigulako interesatzen egitea da, gauza horiek, prestatuntza hori asko axola zaigula erakusteko aukera pasatzen uztea.

Balioestea neska-mutilak animatzea da, baita irakasleak eta hezkuntza taldea ere, gure seme-alaben konpromiso zibikoa sustatzeko ildo horretan lan egin dezaten.

Balioestea da Ikasketa+Zerbitzuko proiektuekin curriculumaren barruko zein ikaskuntza ari diren sustatzen ezagutzea. Egiten denari balioa emateko galdetzea eta ulertzea.



7.2. Zabaldu

Eskolak proiektu horiek jada garatzen baditu, interesa erakutsi eta babestu egin ditzakegu eta emaitzak ospatu. Bestela, irakasleak anima ditzakegu esperientzia labur, erraz eta motibatzailearen bati hasiera emateko.

Gurasoen elkarteko zuzendaritzako kideei ere esan diezaiekegu eskolatik kanpoko jardueretan ere Ikasketa+Zerbitzukoak sustatu ditzaten. Eskola Kontseiluan familien ordezkariekin ere bildu gaitezke, ikastetxean Ikasketa+Zerbitzua sustatu dezaten animatzeko eta informazioa emateko.

7.3. Implikatu

Modu aktiboan laguntzea proiektuen protagonista kide izanik. Gure denboraren, ezaupideen, harremanen edo baliabideen atal bat eskura jartzea, proiektua egiteko. Denbora eman dezaket proiektuan laguntzeko, neska-mutilei lagun egiteko Ikasketa+Zerbitzuko jarduerak egiten ikastetxetik kanpora irten behar direnean.

Haien gurasoak antolatu ditzaket euskarria eman diezaioten proiektuari, lehenengo etxetik eta gero, irakasleekin batera zertan lagundu dezakegun aztertuz.

7.4. Inspiratu

Gurasook ere inspiratu gaitezke Ikasketa+Zerbitzuan gure seme-alabekin gaudenean. Elkartasuneko edo boluntariotzako jarduerak partekatu diezazkiekegu. Horrela, gizarte trebetasunak, ezaupideak eta erantzukizunari adore emango diogu.

Era berean, beste familia batzuekin ere elkartu gaitezke astialdian edo oporretan, familiako elkartasun proiektu bat antolatzeko Ikasketa+Zerbitzuko proiektuen erara.



8. IKASKETA+ZERBITZUA FAMILIAKO BIZITZA BERRITZEKO

8.1. Gure seme-alaben hezkuntza berritzea


Hezkuntzaren berrikuntzak ikerketako jarrera eta prozesuei lotutako ekintzak burutzea dakar, hezkuntzako praktikan aldaketa dakarten arazoei irtenbidea emateko. Hezkuntzaren berrikuntzak ikerketa-ekintza bultzatzen du ezaguerak sortzeko eta ekintzako esperientzia zehatzetarako.

Ikasketa+Zerbitzua hezkuntza esparruko ildo berritzaile bat da, eskola erakundeaz haratagokoa eta komunitatean proiektatzen da, gizartean eraldaketa eragiteko.

Hezkuntzan berritzen da, hauengatik:

- ikasleen protagonismoa hezkuntzako ibilbidean aktibatzen duten prozesuak sartzen direlako
- aldaketak sartzen dituelako irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren forman eta funtsean
- eskola komunitatera zabaltzen duelako, gizarte eragileekin elkarreaginean arituta eta gizartea aldatzeko proiektuak partekatuta.

Eskolak testuingurutik isolatzen duten hormak hausten ditu, komunitatearen eraginera zabaltzen da eta gizarte eragileak hezkuntzako eragile gisa ezagutzen ditu. Bizitako esperientziatik, ikasleek aurrera egiten dute herritartasuna garatzen.



Ikasketa+Zerbitzuak, ikaskuntzako proiektu integratu gisa posible egiten du curriculumeko arlo desberdinek, hezkuntzako profesionalek eta gizarte eragileek norabide berean lan egitea. Horrela, ikastetxearen Hezkuntza Proiektu beraren parte dira, hezkuntza kultura eta komunitatearen aldaketa sortzen dute.

8.2. Gure familia bizitza berritzea

Asmoa da gure seme-alaben prestakuntzaren ardurak bakarrik eskolari transferitzeko dinamika haustea.

Gure familia ere familia solidario bihurtu daiteke, elkarri laguntzea, gizarte kontzientzia izatea, apaindura gutxiago eta ez kontsumista balio gisa izanik.

Gure familia topaketarako, zabalteko toki izan daiteke, barrutik bizi izanda eta elkarrekin mesedetan lan egiten duten eskolarekin eta entitateekin batera lan eginda.

Gure familia beste helmuga batzuetara zabaldu daiteke, seme-alaben begiak herritartasun globalari zabalduz, auzotik, herritik edo hiritik haratago.

Familia solidarioan xehetasunak zaintzen dira, hitz egin eta elkartasun keinuak egiten dira familia osoarekin, gertukoekin eta familia hedatuarekin. Gainera, elkartasun espiritu hori eguneroko bizitza partekatzen dugun auzo hurbilera zabaldu daiteke.

Areago, gure familiak beste familia batzuekin batera Ikasketa+Zerbitzuko proiektu propioa sor dezake, eskolatik kanpoko denboran.

Gure familiei mundua eta hark dituen arlo askotako beharrezkoak ezagutaraztea izan daiteke: beharrezko sozialak, ingurumenari lotutakoak, kulturarekin lotutakoak...

Gure familia berritzea beste ekimen batzuetara begira proiektzioa duen espazio bat eragitea da, elkartasun giroa sortzea, errealitatearekin konprometuta dagoen estiloa sustatzea. Gure seme-alaben garapenerako une bakoitzean, ekimen egokiak garatzea, hazkuntzan lagunduz, ikuspegi solidariotik.

Eskertu egingo dizute eta etorkizunean haien familietan erreplikatuko dute.

9. NOLAKOA DA IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTU BAT?

Puntu honetara helduta, erraza da galderaren bat geratzea. Badakigu gure seme-alabei zer on eskaintzen dien. Uste osoa dugu proposamena egokia dela.

Hala ere, agian ez dugu asmatzen nola egituratzen den Ikasketa+Zerbitzuko proiektu bat, zer alderdi izaten diren kontuan, nola artikulatzen diren curriculumeko edukiak ekintzarekin... eta beste hainbat galdera ere izango ditugu oraindik.

Utziezaguzu pausoz pauso azaltzen Ikasketa+Zerbitzuko proiektu baten osagaiak zeintzuk diren eta zein alderdi izaten diren kontuan.

Uste dugu interesgarri izango zaizkizula eta baliteke zertan lagundu dezakezun aurkitzea ere.

Bizkaiko Portugaleteko Santa María ikastetxeko eskolako proiektu zehatz baten memoriaren laburpenetik abiatuta egingo dugu.

Proiektu korala da, Euskal Herriko beste ikastetxe batzuekin batera parte hartu dute. ZERBIKAS Fundazioak eta Deustuko Unibertsitateak sustatu dute eta FEKOORen eta Portugaleteko Udalaren laguntza izan dute.

Proiektua hau da: **HIRI LAGUNKOIAK DENENTZAT.**

Proiektuaren esparrua


Hiri lagunkoiak denentzat komunitateen arteko ekimen baten parte da. **Hiri irisgarritasuneko konpromiso zibikoa** eta kontzientzia indartzea da asmoa. Mugikortasunari oztopoak eta erraztasunak ematea ardatz hartuta. Gazteak dira prozesu horren protagonista, mugitzeko desgaitasuna dutenekin lankidetzan estuan.

Izan ere, bi taldeak hiritarren parte hartzetik baztertuak izan dira. Horregatik, inguruan eragiteko benetako aukera honek gogobetetasun maila handia eragiten die.

Hona hemen proiektuaren osagaiak:

1

Boluntarioek, hezkuntza taldeak eta DBHko ikasleek dibertsitate funtzionalari buruzko eta OpenStreetMap-i buruzko prestakuntza egiten dute.



2

Nerabeak eta aniztasun funtzionala duten pertsonak hirian dabilta.



3

Sarrera zailak, bide alternatiboak aurkitzen dituzte... argazkiak erabilia, orientazioa garatuta eta inguruan moldatuta.




4

Gero, mapatu egiten dituzte herriko puntu horiek OpenStreetMap-en. Software libre hori erabilia, geolokalizazioan oinarritutako mapa digitalak editatzen dituzte, puntu bakoitzari semaforo kodeak aplikatuta. Online datuen igoera horri esker, automatikoki ikusten dira App-ean (edozein pertsonaren eskura) eta bertan "ibilbide lagunkoia" sortzen dituzte.



5

Ikasleek administrazio publikorako eta elkarterako irisgarritasun txostenak egiten dituzte. Itzulketa kolektiboa.



6

Parte hartzaileek esperientzia aztertzen dute, bakoitzarena eta taldekoa.



Proiektu honi buruzko informazio osoa web honetan aurkituko duzu: www.ciudadesamigables.org

Orri honetan proiektuan erabili den material didaktikoa eta proiektuari buruzko informazio guztia duen *Briefing* izeneko dokumentua.

9.1. Proiektuaren sinopsia

Portugaleteko (Euskal Herria) Santa María ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleek, bestelako gaitasunak dituzten pertsona batzuekin batera, ingurua **mapatu** dute eta **OpenStreetMap**-en partekatu eta hobekuntzarako proposamenak planteatu dituzte.

Horrela, ikasleak eragin handiko lan baten ikertzaile eta protagonista bihurtzen dira. Metodo zientifikoko gaitasunak sendotzea lortu eta ingurua hobetzen laguntzen dute zenbait produkturekin, komunitateari aurkezten diote hala nola:

- datu mapatuak
- garatutako software librea
- **ibilbide lagunkoak**
- irisgarritasun txostena.

Horretarako, diziplina guztietako ezagutza propioak jarri behar dituzte martxan: etika, fisika, euskara, ingelesa, matematika, hizkuntza, informatika...

Ikasi, konprometitu, hausnartu eta lan egiten dute bokazio zientifikoak eta solidarioak sustatuta. Gainera, proiektu hau, beste asko bezala, lotuta dago Garapen Jasangarriako Helburuekin.



Garapen Jasangarrirako Helburuak dira hemendik 2030era:

<p>4 KALITATEZKO HEZKUNTZA</p>	<p>4.7 Ziurtatzea ikasle guztiak beharrezko ezagutza teoriko eta praktikoak garapen jasangarria sustatzeko hauen bidez: garapen jasangarrirako hezkuntza eta bizi estilo jasangarria, giza eskubideak, genero berdintasuna, bake eta indarkeriarik gabeko kultura sustatzea, mundu mailako herritartasuna eta kultura aniztasuna balioetsiak eta garapen jasangarriaren kulturara ekarpena.</p>
<p>10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA</p>	<p>10.2 Sendotzea eta sustatzea pertsona guztien gizarte, ekonomia eta politika mailako inklusioa, edozein dela ere adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza.</p>
<p>11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK</p>	<p>11.3 Gehitzea urbanizazio inklusibo eta jasangarria, planifikazio eta kudeaketa parte hartzaileko, giza kokagune integratu eta jasangarriak lortzeko herrialde guztietan.</p> <p>11.7 Sarbide unibertuala bermatzea berdeguneetara eta espazio publiko seguruetara, inklusibo eta irisgarrietara. Bereziki emakumeei eta haurrei, adinekoei eta desgaitasunak dituzten pertsoneri.</p>
<p>17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA</p>	<p>17.16 Garapen Jasangarrirako Mundu mailako Aliantza hobetzea eta osatzea, beste eragile ugariarekin egindako itunekin, ezagutzak, espezializazioa, teknologia eta finantza baliabideak mugitu eta trukatzeko. Garapen Jasangarrirako Helburuak herrialde guztietan, bereziki garatzeko bidean dauden herrialdeetan lortzera iritsi daitezten.</p> <p>17.17 Arlo publikorako, publiko-pribaturako eta gizarte zibilerako aliantza eraginkorrak eratzea sustatu, baliabideak lortzeko esperientzia eta aliantzetako estrategiez baliaturik.</p>

Iturria: REDAPS (2020) *100 Buenas prácticas de Aprendizaje-Servicio. Inventario de experiencias educativas con utilidad social*. Madrid: Santillana argitekoa.
<https://redaps.files.wordpress.com/2019/12/100-buenas-prc3a1cticas-de-aprendizaje-servicio-102342.pdf>

Proiektu horrek badu bideo ba nola garatzen den ulertzeko: <https://youtu.be/EJRMVKObV6M>

9.2. Proiektuak artatzen dituen gizarte beharrianak

Ikasketa+Zerbitzuko proiektu batean egiten den lehenengo gauza inguruko gizartearen beharrak aztertzea izaten da, neska-mutilak gizarterako kausa batean inplikatzeko justifikatzeko.

Kasu honetan desgaitasuna eta mugikortasuna mugatuta dutenentzako hiri irisgarriagoak egitea da. Hau egingo da ikasleen inguruko testuingurua aztertu eta ikastetxeak zertan lagundu dezakeen ikusi ondoren.

9.3. Neska-mutilen hezkuntza premiak

Proiektua burutuko duen ikastetxeko ikasleengan igartzen ditugun hezkuntzako premiak identifikatzea da kontua.

Herritar asko itsu gara dibertsitate funtzionala duten eta noizean behin hirietatik joan-etorriak egin behar dituzten eta mugitzeko mugatuta dauden egoeretan dauden pertsonen zailtasunekiko.

“**Betaurrekoak aldatzeko**” beharra ikusten dugu, nerabeek errealitatea beste era batera ikusteko beharra, batzuetan beren esperientzian eta berdinen taldearen interesetan ardaztu egoten baitira.

“Lehen ez nion garrantzirik ematen Portugaleten mugitzeko zeuden oztopo askori. Proiektu honi esker konturatu naiz aldatu beharreko zerbaite dela, pertsona guztiok baitugu edozein ataritarra, dendatarra sartzeko eskubidea”.

Santa Maria ikastetxeko DBHko 4. mailako ikaslea, 2015-2016 ikasturtea



9.4. Ikaskuntzaren helburuak eta curriculumarekiko loturak

Ikasleei proposatzen zaizkien gaitasunen garapenek Zeharkako Gaitasunekin eta Diziplanetako Gaitasunekin dute zerikusia.

Proiektuaren hezkuntzako helburu nagusiak hauek dira:

- 1) Hirietako irisgarritasunaz **sentsibilizatzea**, Giza Eskubide den heinean.
- 2) Interneten **Plataforma** irekia batera garatzea, ibilbide lagunkoiak eta seguruak sortzea erraztuko duena.
- 3) Hiri irisgarritasuneko **Txostenak** egitea Administrazioarako eta gizarterako.

Horretarako proiektua kokatuko den curriculumeko espazioetako edukiak ditugu:

- Diziiplina akademiko guztietan erabil daitekeen metodo zientifikoaren ezagutzak eta gaitasunak: hipotesiak sortzea, datuak aztertzea eta biltzea.
- Trebetasunak garatzea informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, OpenStreetMap erabiltzea.
- Lankidetzarako jarrera eta hausnarketarako jarrera bezalakoak indartzea.
- Proiektu komun batean eta parte hartze komunitarioan parte hartzeko espiritua garatzea.

9.5. Zerbitzuak lortu beharreko helburuak

Zerbitzuaren helburuak definitzeak lanerako jarraibideak eta proiektua ebaluatzeko irizpideak ezartzeko modua ematen digu.

Esperientzia zehatz honetan, hezkuntzako hiru helburu identifikatu daitezke. Ikasketa+Zerbitzuko esperientzian txertatuta dauden helburuak dira:

- Portugaleteri buruzko irisgarritasuneko datuak sartzea OpenStreetMap plataforman eta irekian partekatzea.
- Instalazioen irisgarritasuneko txostena aurkeztea ikastetxeko zuzendaritza taldeari, eta FEKOOReko, Deustuko Unibertsitateko eta Zerbikasako ordezkariek ere gonbidatzea.
- Esperientzia Euskadiko irakasleei aurkeztea, Gasteizeko ikasketa eta zerbitzuko jardunaldian.
- Portugaleteko Gazte Aretoan ekimenaren aurkezpen ekitaldia antolatzea, familiekin eta gonbidatu bereziekin.
- Udaleko irisgarritasuneko txostena egitea eta aldi berean, DBHko 4. mailako ikasleen aholkulari izatea, elkarte osorako irekia izango den ospakizun batekin.

9.6. Neska eta mutilen parte hartzea eta protagonismoa

Ikasketa+Zerbitzuko proiektu bat egiteko beharrezkoa du ikasleek aktiboki parte hartzea prozesu osoan, baita plangintzan, betearazpenean eta ebaluazioan ere.

DBHko 4. mailako gazte hauen protagonismoa ardatz hartuta, bi ekintza nabarmenduko ditugu:

- Egindako ekintzen lehen emaitzak unibertsitatean jendaurrean aurkeztea, entzule zituztela, besteak beste, udaleko alkatea eta irakasleak. Diego Lastrari omenaldia egin zioten, haren familiarekin batera. Aukera izan zuten entzunak izateko, bestelako espazio batean eta ilusioz eta emozioz beteta.
- Santa Maria Ikastetxeko txostena zuzendaritza taldeari aurkeztea. Taldeak ikastetxeko zuzendaritza-taldearen aurrean entzunaldia egiteko eskaera egin zuen, ikastetxearen irisgarritasunari buruzko kezka emaitzak aurkezteko. Diagnostikoa eta hobetzeko proposamen zehatzak egin zituzten zenbait puntutan eta harrera bikaina izan zuen.



9.7. Proiektua egiteko sarean egin beharreko lana

Ikasketa+Zerbitzuko proiektu baten ezaugarrietako bat inguruko erakundeekin sarean lan egitea da. Inguruko erakundeekin elkarlanean eta komunitatera proiektatzen den eskola esperientzia bat da.

Portugaleteko Santa Maria Ikastetxeak, Bizkaian, harreman eta kontaktu sare zabala garatu du hainbat entitate, estamentu eta erakunderekin.

Proiektuan parte hartzen duen pertsona bakoitza onuraduna da ikaskuntzan, bere erakundeentzako datuetarako sarbidean, ikerketan...

Adibidez:

- DBHko 4. mailako 99 ikasle, Santa Maria Ikastetxean.
- Santa Maria Ikastetxean inplikaturako irakasleak.
- FEKOOR eta IGON elkarteetako profesional eta erakunde elkartuak. Bizkaian desgaitasuna duten pertsonen eskubideak lortzeko lanean dihardutenak.
- Deustuko Unibertsitateko ikertzaileen diziplinarteko taldea.
- Deustuko Unibertsitateko ikasleak.
- Zerbikas Fundazioko boluntarioak.
- OpenStreetMap-eko boluntarioak. Lana garatzen, erabiltzen eta eguneratzen laguntzen dute.
- Proiektuari eta haren jarraipenari laguntzeko interesa duen beste boluntario batzuk.

Sareko lan hori guztia parte hartzen duten pertsonen eta erakundeen interes komunek eta partikularrek sustatzen dute:

- Irakasleek, gure ikasleei zentzuz eta esanahiz ikasteko aukerak eskaintzea. Aldi berean, gizarte-konpromiso eraginkorrek lortzea.
- Desgaitasuna dutenen erakundeek, irisgarritasuna termino inklusiboetan aldarrikatzea.
- Portugalerako Udalak, herritarren parte-hartzea sustatzea.
- Ikertaldeek komunitatean ezagutza transferitzea eta inferitzea.
- Zerbikas Fundazioak, Ikasketa+Zerbitzua sustatzea. Kasu honetan, komunitate arteko proiektu bat eskalatzen laguntzen du, nekez onartuko litzatekeena hasieran sustatzailezik ez balego.
- Fundación Española de Ciencia y Tecnología (FECYT) bokazio zientifikoak pizten dituzten proiektuak sustatzea.
- Beste erakunde edo talde batzuek, hala nola OpenStreetMap-ek, boluntariora oinarri nagusi gisa hartzea.

9.8. Proiektuaren faseen egutegia eta deskribapena

Garrantzitsua da Ikasketa+Zerbitzuko proiektu batek egutegi bat izatea proiektuaren faseak zehaztuta. Ez da egutegi itxia, baizik eta prozesuan zehar argitara atera daitezkeen arazoen ebazpena egokitzeko sortua.


9.9. Ikasteko eta hausnartzeko jarduerak

Ikaskuntza dago ikaskuntzak errealitatean aplikatzeaz jabetzeko eta komunitatean proiektzioa duten bakoitzaren eta taldearen garapenerako ikaskuntza berriak ateratzeko aukera ematen duen hausnarketa-prozesua dagoenean. Prozesu hori funtsezkoa da.

Banakako eta taldeko hausnarketa-fase espezifikokoak, galdetegiak eta eztabaida-taldeak egiten dira. Funtsezkoa da ere fase guztietan sistematizatutako gogoeta egitea. Adibidez, sentsibilizazio-tailerrean ikasle bakoitzak desgaitasunaz duen pertzepzioari (PRE) buruzko ideiak jaso dira, eta agerian geratu da kontzeptu hori aldatu egin dela ikaslearen parte-hartze prozesuan zehar eta amaieran (POST).

Hausnarketa individuala eta kolektiboa sustatu da jarduera hauen bidez:


- Kanpoaldea mapatzea, aire zabalean.
- Erakundearen barrualdea mapatzea.
- Santa Maria Ikastetxeko irisgarritasun-txostena egitea.
- Etxegoki bisitatzea: FEKOORrek kudeatzen duen apartamentu lagunduen foru-zerbitzua.
- Portugaleteko aisialdi-parkearen balorazioa egitea.
- Ikasturteko emaitzen berri ematea. Irisgarritasun txostena egitea.



9.10. Zerbitzu eta inpartu jarduerak ingurunean

Ikaskuntza-jarduerak funtsezkoak diren bezala, zerbitzu-jarduerak ere funtsezkoak dira. Ikasketa+Zerbitzuan ikaskuntza dago bakarrik zerbitzua badago eta zerbitzua dago ikaskuntza badago. Errealitate banaezinak dira.

Proiektuaren erdiguneko jardueretako bat eta baloraziorik onena jaso duena ikasleek mugikortasun-zailtasunak dituzten pertsonekin batera talde mistoetan egiten duten landa-lana da. Portugaleteko irisgarritasunari buruzko datuak bildu dituzte, 5 ikasleko taldeetan, FEKOORreko profesional eta erabiltzaileekin, irakasleekin, ikertzaileekin eta gainerako boluntarioekin batera.



PORTUGALETEko mapatzearen ondorioz, FEKOORreko gure laguntzaileekin batera, guk geuk sartu ditugu... 388 espaloi zati eta 722 puntu! Dena partekatu dugu OpenStreetMap Software Librean (plataforma irekia, nazioartekoa, mundu osoko milioika boluntariok bisitatua eta hobetua).

Plataforma honetan puntuak irekian marraztu ditugu eta, gainera, kolore bat eman diegu irisgarritasuna baloratzeko (BERDEA, irisgarria; LARANJA, ia irisgarria; GORRIA, ez irisgarria).

Hemen ikus daiteke nola geratzen diren aplikazioan, sartu ditugun espaloi-zatiak.

Une honetan, edonork ikus ditzake aplikazioan sartu ditugun datuak (ciudadesamigables.org). Gainera, laster edonork eguneratu edo zuzenean sartu ahal izango ditu datu berriak OpenStreetMap-i lotutako App honetatik.

Puntuek (saltokiak, atariak, zebra-bideak...) eta bide-zatiek ere balio dute App-etik IBILBIDE LAGUNKOIAK sortzeko: etxetik atera eta farmaziara joan nahi badut, jakin dezaket zein bide den irisgarriena, mapan bi puntuak jarri, eta App-ak bidea sortzen dit.

9.11. Ospakizuna

Ospakizuna da egindako lanaz kolektiboki jabetzeko une gorena. Prozesuan parte hartzen duten kolektibo guztiek parte hartzen duten festa eta komunikazio-gunea da.

Portugaletako Gazte Gelan ospatu eta itxi da proiektua. Ikasleek parte hartu dute ekitaldiaren koordinazioan, edukietan, sintesian, ikus-entzunezko materialetan eta beren familiei eta irakasleei bidalitako gonbidapenean, bai eta parte-hartzaileen ordezkariak eta proiektu honetan zehar parte hartu duten hainbat erakunderi ere: FEKOOR, Portugaletako Udala, Zerbikas Fundazioa, Deustuko Unibertsitatea.

Aurkezpena haiena izan da oso-osorik eta xehetasun txiki batzuk eman nahi izan dizkiete prozesu horretan babesak eta laguntza eman dieten pertsonak. Gainera, ikasle batek biolin-kontzertu bat eman du ekitaldia amaitzeko.



9.12. Hedapena

Proiektu orok, komunitatearentzat eredugarria izan dadin hedapen fasea behar du, beste testuinguru batzuetan errepikatu beharreko ekimen gisa. Horretaz gain, ezagutzera eman behar da zer egin den eta zergatik.

www.ciudadesamigables.org webgunean, Portugaleteko hiri-sareari buruz gazteek partekatutako irisgarritasuna ebaluatzeko material guztia duen App-a dago.

Bertan daude @Hiri_Lagunkoiak ekimenaren twitter koordinatzailea, triptikoa gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez eta FEKOORrek emandako sariaren harira 2015eko abenduan grabatutako testigantzen bideo-erreportajea.

Ekimeneko hainbat eragilek elkarrizketak eman dituzte tokiko irriari eta aldizkarietan, gonbidapen bidezko aurkezpenak egin dituzte nazioarteko biltzarretan, aurkezpenak egin dituzte ikastetxe eta gizarte sareen aurrean... Adibidez, ikasleen batzorde batek, 2016ko martxoaren 17an, Gasteizen, Ikasketa+Zerbitzuari buruzko jardunaldi batean, Euskadiko irakasle batzuen aurrean aurkeztu zuen elkarlanean egindako lana.

9.13. Aurrekontua, giza baliabideak eta materialak

Ikasketa+Zerbitzuko proiektu orok diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena izan behar du. Baita hori gauzatzeko dituen giza baliabideena ere. Baliabide horiek eskaintzen dituzte ikastetxeak, erakunde laguntzaileek eta proiektuari finantzaketa eta laguntza ematen dioten erakundeek.

Giza baliabide gisa zenbatu ditugu inplikaturako profesionalek eta boluntarioek emandako orduak. Baliabide material gisa, inplikaturako erakunde bakoitzak (hezkuntzakoa, soziala edo udalekoa) proiektuaren esku jarritakoak. Horien artean daude,

ekimenarekin konprometitutako FEKOORreko erabiltzaileak eta langileak. OpenStreetMap-en ikusgai ez dagoen komunitatea ere bai: milaka boluntario mundu osoan zehar banatuta, software libre hori elikatzen.

Gainera, ZERBIKAS Fundazioaren eta Deustuko Unibertsitatearen bidez, Portugaleteko Udalaren eta FECYT-en aintzatespena eta laguntza ekonomikoa jaso dute.

9.14. Proiektuaren ebaluazioa

Proiektu guztietan garrantzitsua da ebaluaketa, etorkizuneko proiektuak hobetzeko ondorioak ateratzea ahalbidetuko duelako. Banakako eta taldekako ebaluazioa ere beharrezkoa da, hezkuntza-prozesuaren azken kalifikaziorako datuak emateko. Beharrezkoa da ikasleen gaitasunen garapena kontuan hartzea.

Une honetan, www.ciudadesamigables.org webgunean kontsulta daitezke ekimenean gazteek **OpenStreetMap**-en bidez partekatututuzten datu guztiak.

Zenbait puntu zailtasun gisa identifika daitezke, baina baita erronka eta aukera gisa ere:

- Pertsonen inplikazioa dinamizatzea, hala nola irakasleak, ikasleak, profesionalak, erakundeak, boluntarioak... Baita mapatze lanean kalean ibili garenon jarreraren ere. Hala, oztopo nagusia **kontzientzia** da, halakorik ez egotea edo ikuspegi asistentzialista izatea edo **irisgarritasun unibertsalari** lotuta ez egotea **pertsona guztien eskubide gisa**. Oztopoa eta, aldi berean, aukera bat da horren gainean lan egiteko behar hori agerian uztea.
- Ekintza zuzenen zerbitzu komunitariotik harago eramango duten irakasleak **erakartzea**, irisgarritasun txostena elkarrekin egitean irakasgaiekin lotu ditzaten.
- Irakasleen koordinazioa eta komunitateen arteko koordinazioa izatea, agendetan elkarguneak aurkitzeko. Erakunde edo talde sustatzaile baten koordinatzailearen rola erabakigarria da **sarean** lan egiten denean.

Horregatik guztiagatik, oso positibotzat jotzen dugu ZERBIKASen laguntza, zentro sustatzailea den aldetik, proiektua eskalatzeko, proiektua modu irekian eta jasangarrian aldatzeko eta **HEZKUNTZA-MATERIAL BERRITZAILEAK sortzeko**, irakasleei ekintza **konprometitua eta eraldatzailea hezkuntza-programarekin lotzeko lana errazteko**.

Ikusten duzunez, Ikasketa+Zerbitzuko proiektu bat eraikitzea prozesu errazagoa edo konplexuagoa da, ikasleen adinaren arabera.

Irakasleen inplikazioa eta curriculumeko ikaskuntzak garatu nahi den ekintzarekin lotzea eskatzen du. Aldaketa garrantzitsua da irakatsi eta ikasteko metodologian, ikasleen herritar erantzukizunen esparruan sarrera egitea da.

Halaber, ikasleek ere parte hartu behar dute, bizi diren eta hezten diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta komunitatearen parte direla sentitzen baitute.

Ikasketa+Zerbitzua hezkuntza aukera kontzientea da. Aukera ematen du gure seme-alaben hezkuntzako arlo batzuk garatzeko; bestela, paper busti edo testuliburuko ariketa bat izango litzateke.


Azkenik, garrantzitsua da gogoratzea curriculumeko edukiak dira gaitasunak, jarrerak, trebetasunak, emozioak... eta bizitzarekin lotutako beste ikaskuntza asko, gure seme-alabek herritar aktibo, konprometitua eta arduratsu gisa hazteko espermentatu behar dituztenak.






10. IKASKETA+ZERBITZUA PRAKTIKATZEKO HAMAR ARRAZOI

1. Ikasketa+Zerbitzuak **hezkuntzaren zentzu soziala berreskuratzeko** laguntzen du eta, funtsean, gizartea hobetzeko balio behar du. Haurren eskubideen arabera heziak izateko eskubidea berreskuratzeko balio du, haurrek beren ezaugarri onenak gainerako pertsonen zerbitzura jarri behar dituztela sinetsita.
2. **Herritartasunaren kontzeptu demokratikoa eta parte-hartzailea garatzeko** balio du norbanakoaren eskubideei eta kontsumo-jarrerari soilik lotutako ikusmolde mugatua gainditzeko. Gainera, haurrak eta gazteak jarduneko herritar potentzialtzat hartzea sustatzeko balio du.
3. **Justiziaren etika zaintzaren etikarekin orekatzeko aukera** ematen du. Etika horren balio nagusiak dira norberarekiko eta besteekiko erantzukizuna, harreman pertsonalak eta mundu guztia ondo bizi ahal izateko kezka.
4. Alderdi kognitiboak **ikaskuntza**ren jarrerazko alderdiekin eta alderdi moralekin integratzen laguntzen du eta egungo zatiketa eta deskonexioa saihesten dira.





5. **Auzo eta herrietan kapital soziala eta kohesioa handitzen** laguntzen du. Hainbat eragileren konplizitatea eta hezkuntza-ahaleginen batura sustatzen du, sarean lan eraginda eta endogamiak gaingiduta, hau da, arlo ezberdinetako pertsonekin lan eginda.
6. Gazteei lagundu egiten die **hobeto ikasten**, emaitza akademikoak hobetzen eta ikasteko motibazioa hobetzen, ikasten dutenaren onura soziala ikusita eta aintzatetsita eta balioetsita sentituta.
7. **Boluntariotza sustatzeko** eta gizarte-erakundeek eta GKEek komunitateari egin diezazkioketen zerbitzuen kalitatea handitzeko balio du, haien kausa neska-mutilen ikaskuntzekin lotzen baita.
8. Gure auzoetan eta herrietan dauden **jardunbide egokiak indartzen eta ikastetxeek gizartean duten irudia hobetzen** laguntzen du, inguruan aldaketak eragiteko duten gaitasuna erakusten dutelako.
9. Hezitzaileen **agerikotasuna eta lidergoa handitzen** laguntzen du, gizarte-dinamizatzaile diren eta inguruan hezkuntza-balioak zabaltzen dituztenaren aldetik.
10. **Nerabeei buruzko pertzepzio soziala hobetzeko** balio du, sarritan estigmatizatua edo estereotipatua egoten baita.

Iturria: Battle, Roser (2020). *Aprendizaje-Servicio, Compromiso social en acción*.
Madrid: Santillana argitaletxea. 33. orritik aurrera

11. GURASO ELKARTEAK, IKASKETA+ZERBITZUAREN BULTZATZAILE

Guraso elkarten atzean, oro har, pertsona talde txiki bat dago, euren seme-alaben hezkuntzarekin eta komunitate guztikoekin konprometituta dagoena.

Hasierako asmoa da ikastetxeko hezkuntzaren kalitatea hobetzen saiatzea, familiek ikastetxearen erabakietan parte har dezaten sustatzea. Baita gurasoak trebatzeko eta laguntzeko ekintzak sustatzea ere, beren seme-alaben hezkuntzan hain garrantzitsua den garaian.


Hezkuntza komunitateak ez du beti lan desinteresatu hori behar bezala aintzatesten, hau da, "eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzten pertsonatza" baino ez dituzte hartzen. Administrazioak ere ez ditu behar bezala balioesten eta batzuetan, irakasleen klaustroak berak ere ez. Izan ere, klaustro horrek, askotan hezkuntza administrazioaren aurrean bere aldarrikapenak egiteko edo ikastetxearentzat baliabide gehigarriak lortzeko erabiltzen ditu.

Ikuspegi horrek askotan desbideratu ditu guraso elkarteak familien elementu dinamizatzaile gisa, haurren eta nerabeen hezkuntzari buruzko nahiak jasotzeko instantzia gisa dituzten aukeretatik.

Hezkuntza legeek, normalean, modu mugatuan planteatzen dute elkarte horien zeregina, hala nola ikastetxeetako hezkuntza jardueretan laguntzea edo ikasleen gurasoen ordezkaritza eta parte hartzea erraztea eskola kontseiluetan.

Beharrezkoa da guraso elkartei ikastetxearen hezkuntza proiektua definitzeko duten "ahotsa" aitortzea. Izan ere, proiektu hori ez da irakasleen proposamen hutsa, gurasoek gauza asko baitituzte esateko.

Adibidez, familien ahotsak zerikusia du ikastetxearen hezkuntza estiloarekin, landu beharreko balioekin, bizikidetzarekin, ikastetxeko irakasleek ikasleen familiekin duten harremanarekin, ekimen inklusibo eta solidarioekin, ikastetxeak komunitaterantz duen proiektzioarekin...



Eta familien ahotsa modu eraginkorrean hartu behar da kontuan. Zenbat eta gehiago parte hartu familiek ikastetxearen eraketan, orduan eta gehiago egokituko da ikasleen hezkuntza prozesua eskolako arrakasta lortzera, eta are gehiago ikastetxea testuinguru soziokultural ahulean badago.

Gurasoek ikastetxeari lagundu diezaiokete irakaskuntza-ikaskuntzako hezkuntza prozesuak ikasleentzako hezkuntzako ibilbideetara bideratzen, curriculumaren edukia egokitzen, gaitasunen garapenean lan egiten, ebaluazio prozesuak zentroko proiektuan lortu nahi denera doitzen...

11.1. Guraso elkarteek bultzatu dezakete Ikasketa+Zerbitzua ikastetxean?

Eskolaz kanpoko jardueretan

Halako esperientziak seme-alaben herritar erantzukizuna garatzeko interesgarriak direla uste badugu, guraso elkarteek egin dezaketen lana interes handikoa da.

Alde batetik, ikuspegi hori sar dezakete eskolaz kanpoko denboran antolatzen dituzten jardueretan. Elkarte horietatik sustatzen diren jarduera askok Ikasketa+Zerbitzuaren ikuspegia izan dezakete.

Oinarriko kirola sustatzeko Ikasketa+Zerbitzuaren ikuspegitik lan egitea berritasuna izango litzateke txapelketa eta garaipenarekin sortzen diren hamaika gatazketan. Adibidez, kosta ahala kosta irabazteko edo txapelketetan galtzen duena mespretxatzeko irrikak gainezka egiten duenean.

Irudimena eta sormena jarri behar dira martxan, **oinarriko kirolak** jatorrian izan beharko lukeen funtzio hezitzailea har dezan. Jarduera fisikoetan eta kirol jardueretan Ikasketa+Zerbitzuaren ikuspegia erabiltzeari buruzko esperientzia ugari daude.

Elkarteek **jarduera artistikoak** ere sortzen dituzte, musikalak, plastikoak, antzerkia eta dantza arlokoak. Horiek guztiak landu daitezke Ikasketa+Zerbitzuaren ikuspegitik diziplina horien zentzu artistikoa galdu gabe.

Komunitatea hobetzeko talde espezifikoak ere sor daitezke, testuinguruan edo ekimenetan esku hartzen dutenak herritartasun globalaren ikuspegitik: genero-berdintasuna, inklusioa edo auzoko ikasleen edo haur eta gazteen artean adi entzutea sustatzeko. Are gehiago, senidetan unibertsalaren eta zainketen etikaren ikuspegitik ere lan egin daiteke.

Guraso elkarte batzuek **aisialdi hezitzaileko zentroak** sustatzen dituzte, berdinen arteko laguntza ematen dute eskolaz kanpoko ordutegian ikaskuntza indartzeko. Txangoak antolatzen dituzte, udalekuak eta kanpamenduak, ludotekak...

Jarduera horietan guztietan, Ikasketa+Zerbitzua erabil daiteke balio positiboak garatzeko, batez ere herritar arduratsuak izatea, gainerako pertsonen beharretan pentsatzea...


Garapen Jasangarrirako Helburuetatik lan egin daiteke eta talde-ekimenak susta daitezke eskolaz kanpoko denboran, helburu horien ildoan lan egiteko: ingurumena zaintzeko ekimenak sustatu, belaunaldi gazteentzat mundu jasangarriagoa eraikitzeko lan egin eta planetaren eta gizateriaren etorkizunean pentsatu.

Ikasketa+Zerbitzuak ekimen horiei guztiei ematen die besteak beste:

- bizitzarako trebetasunei, Garapen Jasangarrirako Helburuei, lotutako ikaskuntza edukien ikuspegia,
- hezkuntzaren zutabeen garapena (ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea, ekiten ikastea),
- zeharkako eta diziplinazko gaitasunak garatzeko espazioak.

Guraso elkarteak eskolaz kanpoko jardueretan aritzen direnean, horrelako ekimenak dinamizatzen dituzten pertsonak edo erakundeak kontratatzen dituzte. Komenigarria eta beharrezkoa da, halaber, adieraztea, kontratazio horren aurretik, zein den jarduera horiei eman nahi zaien ikuspegi orokorra. Baita landu nahi ditugun beste alderdi espezifiko batzuei eta taldeen bizitzari eta orientazioari buruzko ikuspegiak ere.

Aldi berean, hezkuntza aukera hori nola gauzatzen ari den jakiteko jarraipen batzorde bat sortu behar da ekimen horien hezkuntza dimentsioa ziurtatzeko eta entretenimendukoa edo lana eta familia bateratzeko ere.



Ikasketa+Zerbitzua ikastetxeko hezkuntza-bizitzan sartzea

Hori bideratzen duena, oro har, Ordezkaritza Organo Gorena da. Honek onartu behar ditu zentroko plana eta haren aldaketak eta eguneratzeak.

Normala izaten da ikastetxeko familien ordezkariak elkarteko kide izatea. Eta hala ez balitz ere, beti da posible guraso elkarreak helaraztea gai honen eta beste batzuen inguruan duen kezka eta interesa.

Oinarritzkoa da zentroan etapa bakoitzean eta ikasleen profiletara egokiturik lantzea, herritartasun eta elkartasun balioak, ingurumena zaintzekoak, kultura sustatzekoak... Eta Ikasketa+Zerbitzua proposatzea ikastetxearen hezkuntza estilo modura, Lehen Hezkuntzakoa zein Bigarren Hezkuntzakoa izan.

Horretarako informazioa bilatu behar da. Fundazioaren webgunean euskaraz eta gaztelaniaz aurki ditzakezun ZERBIKAS Gidak egokiak izan daitezke Ikasketa+Zerbitzuko proiektu bat zer den eta nola prestatu behar den jakiteko informazio erraz eta erabilgarria lortzeko. (www.zerbikas.es)

Bat edo bi aukeratu eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeari edo ziklo edo etapako taldeei helaraz diezazkiekezu, antolamenduaren arabera.

Web orriak ere eman diezazkiekezu. Horien artean azpimarratzekoak dira Ikasketa+Zerbitzuari buruzko informazio ugari duten 3 webgune:



- ZERBIKAS Fundazioa, ikasketa eta zerbitzu solidarioa:

www.zerbikas.es

- Red Española de Aprendizaje-Servicio (REDAPS):

www.aprendizajeservicio.net

- Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario (CLAYSS):

www.clayss.org.ar



Batzuetan, estrategia egokiena izan daiteke ekimen horiek interesatzen zaizkion irakasle bati edo maila edo zikloko taldeei planteatzea. Hortik abiarazteko arrapala bat aurki daiteke, unean uneko esperientziei hasiera emateko eta ikastetxeko gainerako ataletara zabaldu ahal izateko.

Eragiteko beste modu bat herriko udalak sustatzen dituen proiektuen bidez proposatzea da. Horietako asko ikasleen herritar, kultura, kirol, gizarte eta antzerako esperientziak sustatzera bideratuta egoten dira eta udalerriko ikastetxeetan proiektuak eta programak sustatzen dituzte.

Espainiako Ikasketa+Zerbitzuko Sarearen webgunean aurki ditzakezue udal-teknikariei eta hezkuntza, partaidetza, gizarte-zerbitzu, gazteria... arloetako zinegotziei zuzendutako gida txikiak.

Hemen dituzue izenburuak eta erreferentziatzko webgunea. "Municipios x el ApS" atalean, doan deskargatzeko gidak aurkituko dituzu.

Guía 1: Cómo crear un grupo local de impulso del ApS.

Guía 2: Cómo promover formación ApS en el municipio.

Guía 3: Cómo establecer alianzas con otros departamentos municipales.

Guía 4: Cómo organizar una jornada local de intercambio de experiencias ApS.

Guía 5: Cómo reconocer a los niños, niñas y jóvenes protagonistas.

Guía 6: Cómo incorporar el ApS en las convocatorias de subvenciones.

Guía 7: Cómo elaborar un inventario de proyectos ApS locales.

Guía 8: Cómo generar un espacio web de ApS.

Iturria: Red Española de Aprendizaje-Servicio: www.aprendizajeservicio.net

Ikusten duzunez, beti dago bide bat, aukera bat, gure seme-alabak ikastetxean hezteko orientazio herritarra eta solidarioa sustatzeko.

Guraso garen aldetik, udalaren, eskolaren eta komunitateko gizarte-erakundeen arteko sinergia horiek aktibatzea erraztu dezakegu. Kontua ez da bakarrik elkarrekin gauzak egitea, baizik eta errealitatea eraldatzeko lankidetzako proiektuak egitea: udalerrri jasangarriagoa, berdinzaileagoa, bidezkoagoa, parte hartzaileagoa, solidarioagoa, senideen artekoagoa, egoera ahulean dauden pertsonak eta kolektiboak gehiago zainduko dituen, kultura eraikitzaileagoa, pertsona batzuk beste batzuek arduratzeko, gutxiengoaren arazoak gehiengoaren kezka izateko, kultura partekatua izateko.

“Nire ustez, eskolako zeregin garrantzitsuenetako bat, garrantzitsuena ez bada, seme-alabak bizitzarako prestatzea da. Hori noski, ez da eskolaren kontua bakarrik. Horregatik, uste dut irekita egon behar duela beti eta bere testuinguruko gainerako gizarte eta hezkuntzako eragileekin lotuta.

Pentsatu nahi nuke eskolako hormak -fisikoak eta antolakuntzakoak- porotsuak direla eta seme-alaben bizitzako beste esparru batzuetan gertatzen dena sartzen dela bertara. Bertan gertatzen denak, bertan ikasten denak, kanpoan gertatzen denarekin lotura duen bezala eta, gainera, kokatzen den komunitatearentzat balioa duela.

Ikasketa+Zerbitzuak hain argi proposatzen duen eta, gainera, egia bihurtzen duen lotura horrek erakarri nau beti ekimenetik gehien.”

Elena



11.2. Guraso elkarteak barne bizitzari begira

Guraso elkarteak ez dira hartzen askotan familien elementu dinamizatzaile modura, familiak seme-alaben hezkuntzaren alde aktibatzen modu interesgarri gisa.

Elkartearen barruan badago zer egin:

1. Prestasuna duten pertsonak badaude, beren burua eskaini dezakete ikasleei laguntzeko, Ikasketa+Zerbitzuko proiektu bat egiten dutenean.
2. Familien arteko baterako Ikasketa+Zerbitzu proiektuak sustatu daitezke.
3. Elkarteak nahi badu, eskolak Ikasketa+Zerbitzuko proiektuak sustatu ditzake. Lehendabizi prestakuntza antolatu behar da elkartearen barruan, gaiaz dakitenekin edo ZERBIKAS Fundazioarekin, REDAPSekin edo unibertsitateko norbaitekin harremanetan jarrita.
4. Ikasketa+Zerbitzuari buruzko online ikastaro batean parte hartu daiteke.
5. Udalarekin eta beste guraso elkarte batzuekin batera, udalerriko aisialdiko ikastetxe, institutu eta hezkuntza-zentroen Ikasketa+Zerbitzuen proiektuen erakusketa antolatu daiteke. Amaitzeko, jendea inplikatzen animatzeko proiektuen jai-erakusketa egin.
6. Udalerriko beste herritar-elkarte batzuekin harremanetan jartzeko aukera egon daiteke, beren ekintza espezifikoetik ikaste-zerbitzuaren berri izan dezaten. Ikasketa+Zerbitzuko proiektuak egin daitezke mendi-talde batean, argazki-klub batean, dantza-talde batean, odol-emaileen elkarteetan, herri-kultura sustatzeko taldeetan, elikagaien bankuan, kontsumitzaileen elkarteetan, bide-hezkuntza sustatzeko elkarteetan, antzerki-taldeetan, herriko edo auzoko liburutegian, laguntza-elkarteetan, adinekoren zentroetan, Caritasen, ingurumen-elkarteetan, Agenda 21en...
7. Interesa izan dezaketen irakasleekin harremanetan jartzeko aukera dago, ikastetxeari proposamen formala egin aurretik. Ziur asko beste mila ideia interesgarri bururatuko zaizkizue.

11.3. Guraso elkarteetatik Ikasketa+Zerbitzuko proiektu bat eraikitzea

Segur aski, pentsatu beharko duzu zuen guraso elkartetik gurasoekin eta seme-alabekin Ikasketa+Zerbitzuko proiektuak egin nahi badituzue, zer egin behar duzuen.

Hona hemen urrats batzuk, zuen asmoa ekintza bihurtzen lagunduko dizuetenak.

1. URRATSA

Nor gara. Zer nahi dugu. Zer ekarpen egin dezakegu.

- Beste pertsona batzuei gogoia piztu.
- Elkartean Ikasketa+Zerbitzuko proiektuen talde sustatzaile bat eraiki.
- Gure interesak partekatu. Gure trebetasunak partekatu.

Urrats hori amaitzean, hausnartu egin behar dugu, une batez:
Zer ikasi dugu taldea eratzeko prozesuan?

2. URRATSA

Errealitate komunitarioa behatu

- Auzoko edo hiriko beste elkarte edo talde batzuen ekintzak eta ekimenak identifikatu.
- Etorikizuneko lankidetzetan pentsatu.
- Arreta jarri kulturari, antzerkian, abesbatzetan, poesian, pinturan, gizarte-arazoetan eta pertsonen arreta ematean lan egiten duten erakundeetan.

Bildutako informazio guztiarekin artxibo bat eta mapa bat egingo ditugu. Komunitatearen ekimenen "mapa" izango da.



3. URRATSA

Gure komunitatearen beharrak aztertu

- Gure erkidegoan dauden premiei buruz pentsatu. Zerrenda egin.
- Ezagutzen dena identifikatu. Komunitatearen behar bat edo batzuk hautatu:
 - Zein da arrazoia?
 - Nor ari da laguntzen?
 - Nola jardun genezake?
- Artatu gabeko beste egoera batzuk aurkitu. Zer jakin behar dugu komunitatearen behar horri buruz eta nor ari da laguntzen? Nola jakin dezakegu?

Urrats hau amaitzeko, gogoeta egingo dugu gure komunitatearen behar horiei buruz, egin ditugun aurkikuntzei buruz eta lan egiteko moduari buruz.

4. URRATSA

Ikasketa+Zerbitzuko ekintza plana aukeratu eta egin

AUKERATU

Komunitatearen beharrak aztertu ondoren, komunitatearentzat komenigarriena edo premiazkoena dena aukeratu da. Hau taldearen aukeretara egokitzen da.

Taldeko kide guztien arteko elkarriketa sortu behar da. Helburu da proiektuari buruzko akordioak eta adostasuna lortzea.





EKINTZA-PLANA EGIN

Gure lana egoki bideratzeko komeni da galdera sinpleak egitea geure buruari:

1. Gure proiektua pertsonen edo komunitatearen beharrezan araberak egiten da ala gure beharrezan soilik oinarritutako proiektua da?
2. Nola lagunduko die gure proposamenak komunitateari, pertsonari, kolektiboari...? Nori zuzentzea nahi dugu?
3. Nortzuk daude proposamen hau aurrera eramateko moduan? Zehaztu egin behar da zer indar ditugun jakiteko. Proiektu batek aurrera egiten du hura sustatzen dutenak inplikatzeko badira, konprometitzen badira. Bestela, ezinezkoa da.
4. Lan hori eginda gero, zer emaitza espero dugu eta nola jakingo dugu lortzen ari garen ala ez? Zer adierazle eta nola erabiliko ditugu jakiteko?
5. Nor arituko da proiektuaren logistikan, proiektua edozein dela ere? Pertsona batzuek ez dute, behar bada, ekintza zuzen baterako konpromisorik hartuko, baina oso eraginkorrak dira gauzak lortzen, materialen eta tresnen antolatzaile...
6. Zer ikasi dugu prozesu honetan? Zer alderdi sakondu, ikasi eta prestatu behar dugu gehiago? Taldeko norik lagunduko digu? Taldeetik kanpoko norik lagunduko digu?

5. URRATSA

Planifikatu eta antolatu

- Zer betekizun formal behar ditugu?
- Nola banatuko ditugu erantzukizunak?
- Zenbat plangintza-bilera behar ditugu eta zein unetan?
- Zein lan-egutegi?...?

IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTU BATEN ESKEMA

1. Proiektuaren izena eta zerbitzuaren definizio labur eta argia.
2. Taldearen eta pertsona konprometituen izena.
3. Zerbitzuaren behar sozialaren eta helburuaren diagnostiko laburra.
4. Hartzaileak.
5. Zerbitzuarekin lortu nahi ditugun helburu materialak.
6. Proiektu hau garatzeko erabili behar ditugun ezagutzak.
7. Proiektua arrakastaz aurrera eraman ahal izateko eskuratu behar ditugun ezagutzak.
8. Zer egiten ari garen, zergatik eta zertarako, zer deskubritzen eta esperimintatzen ari garen hausnartzeko uneak aurreikusi.
9. Egingo ditugun ekintzen edo jardueren deskribapena.
10. Zer erakunderekin arituko garen lankidetzan.
11. Taldearen antolaketa eta lan-egutegia.
12. Aurrekontua.




6. URRATSA

Proiektua gauzatu

- Proiektuaren proiektzio komunitarioa azpimarratu.
- KOMUNIKAZIO arloak kontuan hartu.
- Proiektuaren garapenaren fase bakoitzean egotea, iritzia aldatu.
- Ekintza-Gogoeta-Ekintza elementuak txertatu.

Hasieran ahalegin handia egin ondoren, martxan jartzen dela ziurtatu behar dugu. Nola ziurtatzen da? Proiektu honek arrakasta izango badu, funtsezkoak dira laguntza, iraunkortasuna, zereginetarako gaitasuna, ekintza bakoitza prestatzea eta taldekide bakoitzak behar izan dezakeen euskarria.



7. URRATSA

Proiektua ebaluatu eta ospatu

EGINDAKO ZERBITZUAREN EMAITZAK EBALUATUKO DITUGU

- Lortu ditugu zerbitzuaren helburuak?
- Funtzionatu dute jarduerak?
- Behar bezala antolatu gara?
- Aurrekontura egokitu gara ala ez?
- Nolakoak izan dira gizarte erakundeekiko harremanak?

IKASITAKO IKASGAIAK BERRIKUSIKO DITUGU

- Zer ikasi dugu esperientzia honetan?
- Zer gauza berri dakigu orain?
- Zer ekarpen egin digu gutariko bakoitzari?



ETORKIZUNEAN PENTSATUTA PROIEKTATUKO DUGU: ETA ORAIN ZER?

Proiektua amaitzean, gauzatu dugun zerbitzuaren eta eman dizkigun ikaskuntzen balantzea egiteko aukera eduki beharko dugu.

Hona hemen gure proiektua baloratzeko lau gako:

1. Egindako zerbitzuaren emaitzak ebaluatu.

- Lortu ditugu zerbitzuarekin lortu nahi genituen helburuak?
- Funtzionatu dute egindako jarduerak?
- Ondo antolatu gara?
- Aurrekontura egokitu gara ala ez?
- Nolakoa izan da gizarte-erakundeekiko harremana?

2. "Ikasitako ikasgaiak" berrikusi.

- Zer ikasi dugu esperientzia horretatik?
- Zer gauza berri dakigu orain?
- Zer ekarpen egin digu gutako bakoitzari? Zer heldutasun lortu dugu pertsona gisa?

3. Etorkizunean pentsatuta proiektatu. Eta orain... zer? Puntu honetara iritsita, pentsa genezake zer egin: proiektuarekin jarraitu edo beste proiektu bati ekin eta lekukoa beste talde bati eman.



4. Bizitako esperientzia ospatu. Antola dezagun festa bat esperientziaren amaiera ospatzeko! Garrantzitsua da, halaber, adiskidetasuna sustatzea, prozesu osoan zehar topaketa edo bazkari informal partekatutak eginez.

Aprobetxa dezakegu, halaber, emaitzak ingurukoei jakinarazteko, gizarte erakundeekiko loturak sendotzeko, egindako lana zabaltzeko eta hartzaileak gonbidatzeko.

Bada, nik guraso elkarte batetik igarotzea benetako Ikasketa+Zerbitzutat daukat.

Ni Gurasoen Elkartean sartu nintzen, nire seme-alaben hezkuntzan eredugarri izateko eta eskolarekin harremanetan egoteko modutzat hartu nuelako.

Guraso elkarte bateko kide izateak zu ez bezalakoak diren eta zuk ez bezala pentsatzen duten beste guraso batzuekin harremanak izaten irakasten dizu, eta akordioak lortzen ikasten duzu, helburu bera duzulako.

Harremanak izaten ikasten duzu, ikastetxeko zuzendaritzarekin, alkatetzarekin, mankomunitatearekin, beste elkarte batzuekin...

Batzuetan, lan eskergaitza eta desadostasunak eragiten dituen bada ere, merezi duela uste dut.

Eskola-eremuan zure seme-alaben hezkuntzan aktiboki parte hartzeak aberastu egiten du pertsonalki, familiarik eta sozialki. Atsegingarria da.

Eta askotan denboraren poderioz konturatzen zara horretaz.

Esan bezala, benetako Ikasketa+Zerbitzua da.

Susana Gómez

12. IKASKETA+ZERBITZUAREN EUSKAL SAREA

“Sarea” termino generikoak elkarren artean konektatutako erakunde, pertsona, esperientzia eta abarren multzo bati egiten dio erreferentzia.

Beraz, sare batek aukera ematen du kideen artean informazioa, esperientziak, hausnarketak... partekatzeko, hitzartutako arauen arabera.

Ikasketa+Zerbitzuaren euskal sarea aipatzen dugunean, ulertzen dugu sare horretako kideak **Ikasketa+Zerbitzutik** hurbil dauden esperientzia solidarioen proiektuak hasi edo garatzen ari direla.

Haurrak eta gazteak ere ekintza solidario horretako protagonista dira.

Horrela, **Ikasketa+Zerbitzuaren euskal sarea** zuzentzen zaie:

- testuinguru hezitzaile formal eta ez-formal batean lan egiten duten profesionaleri eta boluntarioei.
- haur eta gazteei, elkartzeko, komunikatzeko eta trukatzeko gune gisa.
- familiei, gurasoei eta familia-eremuko hezitzaileei.

Familiak sare trinko bat osa dezakete ingurunea hobetzeko ekimen komunitarioei euskarria emateko, gure seme-alabei proiektuetan lagunduz, animatuz eta baloratuz.

ZERTARAKO:

- Baliabideak trukatzeko.
- Pertsonen artean komunikatzeko: irakasleak, neska-mutilak, gurasoak.
- Esperientzien artean komunikatzeko.
- Elkarrekin partekatzeko esperientziak, hausnarketak, proposamenak, ekintzak...



**EUSKADIKO
IKASKETA
ZERBITZU
SAREA**

Euskal Autonomia Erkidegoan, sareak hiru NODO ditu, lurralde bakoitzean bat. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten hiru unibertsitateetako irakasleek osatutako UNIBERTSITATE SAREA eratu da.

Interesgarria litzateke Ikasketa+Zerbitzuaren aldeko gurasoen sare bat ere eratzea. Zer iruditzen zaizu?

Sarearekin harremanetan jartzeko, mezu elektronikoa idatz dezakezu ZERBIKASera:

info@zerbikas.es

formacion@zerbikas.es

13. IKASKETA+ZERBITZUAREN ESPAINIAKO SAREA

Espainiako sarea, Red Española de Aprendizaje-Servicio (REDAPS), irabazi-asmorik gabeko elkartea da eginkizun hauekin:

- Ikasketa+Zerbitzua zabaltzea da
- lurralde bakoitzeko taldeen arteko lankidetzaren indartzea
- eskualdeaz gaindiko beste erakunde batzuen aurrean ordezkatzeta.

Hainbat jatorritako pertsonak osatzen dute: ikastetxeek, irakasleen prestakuntza-zentroek, gizarte-erakundeek, unibertsitateek eta tokiko beste ekimen batzuek. Guztiak dute interes berdina: Ikasketa+Zerbitzua sustatzea eta zabaltzea.

Sarea 17 autonomia erkidegoetako **17 taldeek** osatzen dute. Lurralde Taldeek bermatzen dute Sarean bazkide berriak sartzea. Talde horiek beren lurraldeetan Ikasketa+Zerbitzuaren garapena bultzatu nahi dute.

Haur eta gazteak gaitasunak eta talentua komunitatearen zerbitzura garatzeko gai diren herritar aktibotzat hartzea nahi dugu.

REDAPSen webgunean lurraldeetako talde guztien eta kontaktuko pertsonen zerrenda duzu:

www.aprendizajeservicio.net



14. BIBLIOGRAFIA

Batlle Suñer, Roser (2013). *El Aprendizaje-Servicio en España*. Madril: PPC arg.

Batlle, Roser (2020). *Aprendizaje-Servicio. Compromiso social en acción*. Madril: Santillana Educación.

Martín García, Xus y Rubio Serrano, Laura (coord) (2010). *Prácticas de Ciudadanía. Diez experiencias de Aprendizaje-Servicio*. Octaedro arg. Bartzelona.

Martín, Xus (2016). *Proyectos con alma. Trabajo por proyectos con servicio a la comunidad*. Bartzelona: Graó arg.

Puig, Josep M.; Batlle, Roser; Bosch, Carme y Palos, Josep (2007). *Aprendizaje-Servicio. Educar para la ciudadanía*. Bartzelona: Octaedro arg.

Puig Rovira, Josep M. (coord) (2015). *11 ideas clave. ¿Cómo realizar un proyecto de aprendizaje-servicio?* Bartzelona: Graó arg.

REDAPS (2020). *100 Buenas prácticas de Aprendizaje-Servicio. Inventario de experiencias educativas con utilidad social*. Madril: Santillana. <https://www.aprendizajeservicio.net/100-buenas-practicas-de-aprendizaje-servicio/>

UNESCO (2017). *Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Objetivos de Aprendizaje*. Paris: Nazio Batuen Heziketarako eta Zientziarako Erakundea. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000252423>

Uruñuela, Pedro M. (2018). *La metodología del Aprendizaje-Servicio. Aprender mejorando el mundo*. Madril: Narcea.

ZERBIKAS FUNDAZIOA. Zerbikas-en giden bilduma. <http://www.zerbikas.es/>







laguntzarekin



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

